



# Jarduera Plana

## III bolumena

Hondarribiko Merkataritza Indartzeko Plan Berezia 2008



# EDUKIAK

*Edukiak*

## **AMIA Eredua**

Laguntza Puntuak.....	3
Puntu Kritikoak.....	4
Merkataritza Ereduaren Sintesi Ikuspuntua eta Helburuak.....	7

**AMIA**

**Eredua**

## **Jarduera ardatzak**

**Jarduera  
ardatzak**

Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea.....	10
Hirugarren sektore enpresa lehiakorra.....	17
Hiri-giro dinamikoa eta bizia.....	20
Planaren kudeaketa organoak.....	26

# LAGUNTZA PUNTUAK +

*AMIA*

*Eredua*

*Laguntza  
Puntuak*

**Jarduera  
ardatzak**

## **1goa.- Barne Eskaria:**

Ingurugiro pribilegiatu naturala –itsasoa eta mendia- eta bizi kalitate handiko gune bezala taxutua. Honen arabera populazio eta errenta garapen koherentea.

## **2a.- Kanpo Eskaria:**

Ingurugiroari lotutako turismo tradiziodun udalerria, hondartza eta erreferentziazko ekipamendu tradizionala –golf zelaia-, eta ekipamendu berriak –kirol kaia- esate baterako. Uda sasoian bisitari kopuru handia.

Ostalaritza sektorearen indar eta bizitasuna, turismoaren erakargarri gisa eta kanpo proiektzioan jarduten duen motorra delarik.

**3a.-Merkataritza gunearen kokapena –Portua-** kale egitura murriztua, potentzialki erakargarriak diren bi punturen arteko erdibidea (hondartza eta Alde Zaharra); eta itsas aurreko sarbidera hurbiltasuna.

# PUNTU KRITIKOAK -

*AMIA*

*Eredua*

*Puntu Kritikoak*

**Jarduera  
ardatzak**

## **1goa. Barne Eskaria:**

Irun bezalako merkataritza plazaren hurbiltasuna, Hondarribiako bizilagunen artean berezko eskaintza bezala barneratzen delarik. Honek diru-ihes esanguratsua dakar, batez ere, konparazio ondarearen eremuan.

Hiri-gunetik oso bananduta dauden bizitegi-gune zabalak dituen hiri eredu izanik -populazio dentsitate baxua eta merkataritza aurrealde eza-, bizilagunak autoa erabiltzera bultzatzen ditu.

Aipatutako bizitegi ereduaren arabera, eguneroko ondasunen merkataritza hornidura espazialki "zehaztugabea" den eredu batean oinarritzen da (kanpora ihesa ekiditea), baina merkatal gunearekin sinergiarik sortzen ez duena.

# PUNTU KRITIKOAK -

AMIA

Eredua

Puntu Kritikoak

## 2a.- Kanpo Eskaria:

Geldialdi motzeko turismo eredura garapena, merkataritza optimizatzen ez duena. Eredu aldaketaren aurrean, merkataritzaren erantzun falta. Eguraldiarekiko mendetasuna.

Erakargarritasun gune sakabanatua: distantzia handi samarrak eta hiri jarraipenik gabekoak erakargarritasun gune batetik bestera (1 zonaldea: hondartza, kirol kaia, kirol ekipamendu zonaldea, eta 2 zonaldea: portua, merkataritza gunea).

**3a.-Alde Zaharra,** erakargarritasun handikoa eta orografiaren arabera sarbide konplexuak dituena.

Jarduera  
ardatzak

# PUNTU KRITIKOAK -

AMIA

Eredua

Puntu Kritikoak

**4a.- Erdiguneko merkataritza gunea –Portua-** oinezkoen gain, autoak lehentasuna du, saihasbidea egin aurretiko egoera bera mantentzen delarik, trafikoa herrian barrena.

**5a.- Talde bezala desegituratutako merkataritza eskaintza,** aukerak bultzatzeko edo ahuleziak mugatzeko zailtasunak jartzen dituelarik. Adore gutxi eta ondorioz, jarduera gabezia. Lehiakortasun maila hobetzear.

Jarduera  
ardatzak

# Merkataritza Ereduaren Sintesi

## Ikuspuntua

*AMIA*

*Eredua*

*Merkataritza  
Ereduaren Sintesi  
Ikuspuntua*

**Jarduera  
ardatzak**

- Eguneroko ondare eredu egonkortua (erdigunean ez dagoen supermerkatu sarea), udalerriko egoitza egiturari zerbitzua eskaintzen diona, baina, polaritaterik sortzen ez duena –bezero fluxuak- merkataritza gunean- Portuan.
- “Konparazio ondare” eredu, eguneroko elikagaien eskaintzarekin bat ez datorrena, ez eta turismo erakargarritasuna duen ostalaritzarekin ere.
- Lehengo garaietako hirigintzarekin zorretan dagoen Merkataritza gune bat, berrikuntzak behar dituenak+balioztapen konplexua duen interes handiko gune historikoa.

# Helburuak

*AMIA*

*Eredua*

*Helburuak*

**Jarduera  
ardatzak**

1goa. Udalerriaren balio turistikoa komertzialki optimizatu eta merkataritza- ostalaritzaren arteko lotura sustatu ezinbesteko lan-ildo bezala.

2.a. Merkataritza gastuaren ainguraketa indartzea, fideltasunaren bidez eta eguneroko eskaintzaren garapenaren bidez, kanpo erakargarritasun ereduarekin koherente izanez.

3.a. Udalerriaren erdigunean hiri eraldaketak gauzatu –merkataritza gunean- baita bere sarbideetan ere, bizilagunarentzat eta bisitariarentzat, erosketa eta aisialdirako gune erakargarria bilakatuz.

4.a. Kanpoko bisitarien gunen bezala Alde Zaharra balioztatu.

5.a. Hondarribiako hiri ekonomian sektorearen profila bultzatu, bai maila indibidualean baita talde mailan ere, agente bizi eta dinamikoa bilakatuz.

# LAU ESKU HARTZE ARDATZ

*Lau esku hartze  
ardatz*

Lehenengo  
ardatza

**1. Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea**

Bigarren  
ardatza

**2. Hirugarren sektore enpresa lehiakorra**

Hirugarren  
ardatza

**3. Hiri-giro dinamikoa eta bizia**

Laugarren  
ardatza

**4. Planaren kudeaketa organoak**

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

*Lehenengo ardatza*

*Portua*

## **1.1. PORTUA “MEREKATAL GUNEA”: BUTROI PASEALEKUAREN ETA SANTIAGOREN ARTEAN ESPAZIO IRAGAZKOR ETA BIZIA**

### **1.1.1. Oinezkoen guneak**

Portuan oinezkoentzat gunea berreskuratzea (Zuloaga, Matxin de Artzu eta Almirante Alonso), espaloiak zabalduz eta aparkatutako autoak azaleratik baztertuz, merkataritza balioztatzeke asmoz.

Gune horretara iristeko kaleak oinezko gune bilakatu edo hiri estandarra hobetu (Irailak Z, Beleztarren M. Eta D.Egia), horrela Butroi pasealekua eta Portuaren arteko ibilbidea bultzatuko lukeelarik.

San Pedro kalea oinezko gune bilakatu eta berrantolatu, ostalaritzaren eta merkataritzaren elkarbizitza erraztuz; eta bi sektoreen artean gune publikoa harmonikoki erabiltzea bultzatuz – arauak berrikustea- (ikus 3.4.3 esku hartzea).

Prozesu horrekin batera hirigintzaren berritze jarraituaren hobekuntza eta gaurkotzea (altzariak, argitasuna, e.a.).

**Bigarren ardatza**

**Hirugarren ardatza**

**Laugarren ardatza**

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

*Lehenengo ardatza*

*Alde Zaharra*

**Bigarren ardatza**

**Hirugarren ardatza**

**Laugarren ardatza**

## **1.1.2. Autoentzat guneak**

Bentan parking gune bat garatu, kendutako aparkamenduak orekatuko dituen eta merkataritza inguruan aparkamendu eskaintza indartuko duena.

Parking-ari sarbide garbiak eskaini, portura trafikoa ekarriko ez duena eta bertatik pasatzea ekiditeko duena bai sartzekoan eta bai ateratzekoan (ikus 1.1.3 esku hartzea).

Parking inguruko hiri ekonomia gunea indartu, hirugarren sektorearen bidez (urte osoan zehar egonkortasuna duten merkataritza, kultura edo beste hiri ekipamenduekin- osasuna-); eta gune horren diseinuak Portuko beste zonaldeekin loturaren lehentasuna bermatuko duena (“erdi gunea” merkataritza kaleetara zabaldu).

## **1.1.3. Trafikoa eta mugikortasuna: Portuan ibilgailu pribatuen trafiko mugaketa. Mugikortasunaren eta zamalanen udal-arauak berraztertzea**

Azaldutako testuinguruan, Portura doan auto pribatuen trafiko mugatu; “sasoian” batez ere, udalerraren barruan beste mugikortasun tresnak erabiliz (ikus 1.3.1 esku hartzea).

Oinezkoen guneak ezarriz eta autoen presentzia txikituz, udal arauen berrikustapenaren gaurkotzea eta egokitzea, zamalanak direla eta.

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

*Lehenengo  
ardatza*

*Alde Zaharra*

**Bigarren  
ardatza**

**Hirugarren  
ardatza**

**Laugarren  
ardatza**

## **1.1.4. Akartegi eta Portuaren arteko muga orografikoak gainditzea**

Udalerriaren osotasunean, Portuaren merkataritza gunea ezaugarria hobetu, horretarako inguruko auzoen, eta bereziki Akartegiren sarbideak hobetuz. Horretarako elementu mekanikoen instalakuntza beharrezkoa izango da (eskailerak edo igogailua), bi zonaldean oinezkoen ibilbidea erraztuko dutenak, eta fluxu egonkorrak sortuko dituenak. Puntu desberdinetan instalatzeko aukera aztertu.

# Lehenengo ardatza "Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea"

*Lehenengo ardatza*

*Alde Zaharra*

**Bigarren ardatza**

**Hirugarren ardatza**

**Laugarren ardatza**

## **1.2. ALDE ZAHARRA: LEKU BEREZI BATEN BALIOZTAPENA, NORTASUN EZAUGARRI ETA ERREFERENTZIA**

### **1.2.1. Sarbidea**

Bere ezaugarriak direla eta, kokalekua eta harresien artean egoteak, sarbideak oso mugatuak aurkitzen dira (Kale Nagusia- Zumardia; Pasagunea -zezen plaza; eta Javier Ugarte- Turismo bulegoa, azken honek malda handia duelarik). Sarbide berriak sortzea: Sabin Arana, igogailuaren proiektua berreskuratu, bisitariarentzat planteamendu panoramikoaz; Erreginaren Gotorlekua; Portutik hurbil dagoen Harresilanda).

### **1.2.2. Ezaugarri ludikodun tematizazio egonkorra (Eraldaketa indar ideia)**

Alde zaharraren balioztapena, "erdi Aroko" tematizazio proiektuaren bidez. Gune desberdinetan, harresietan, sarbideetan eta barne ibilbide desberdinetan egituratuz. Ezaugarri ludiko- berritzaileak edo historiko- errealistak dituzten gaikako aukera desberdinen analisia, eta eduki dezaketen kostu-onuren eragina. Gune zehatzean proiektua gauzatzeko froga pilotu posiblea.

Orientazio indar ideia: gaitegi ludikoa duten aukeren lehentasuna (entretanimendua), kultur-gai hotzen aukeren aurrean jende mota desberdina erakartzeko gaitasuna daukatenak.

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

*Lehenengo ardatza*

*Alde Zaharra*

**Bigarren ardatza**

**Hirugarren ardatza**

**Laugarren ardatza**

## **1.2.3. Espazio eta gune bereziak balioztatzeko barne ibilbideak**

Hiru plazen arteko ibilbide interesgarriak ezartzea (Arma, Gipuzkoa, Obispo) baita kultur ekipamendu berezia duten guneetan ere (koordinazio eta koherentzia 1.3.4 esku hartzearekin).

Prozesu horrekin zerikusia duten esku hartzeen hobekuntza eta gaurkotzea (altzariak, argitasuna, e.a.).

## **1.2.4. Barne nahiz kanpo polaritatea gauzatzen duten udal-ekipamenduak indartzea**

Hondarribiako bizilagunen artean barne nahiz kanpo polaritatea gauzatzen duten udal-ekipamenduak kokatzea (Musika Eskola barnean) (Herriko Historiaren Interpretazio Gunea, kanpoan): Etorkizunerako apustua eta martxan dauden proiektuak sendotu.

## **1.2.5. Ostalaritza nahiz merkataritza jarduerak laguntzea**

Hirugarren sektoreko jarduerarako lokalak edo xaiak erabiltzea erraztu; bizi-leku erabilera udal-arauen bidez mugatuz.

## **1.2.6. Oinezkoen guneak berrikuntza prozesuaren “geltoki terminus” bezala**

Proiektu eta ekimen multzoa, eraldaketa dinamika batean ezarri, etorkizunean, “geltoki terminus”-a oinezko gunean bukatuz (sarbidea bizilagunentzat, zamalanentzat eta zerbitzu publikoentzat mugatuz).

**HONDARRIBIKO MERKATARITZA INDARTZEKO PLAN BEREZIA 2008**

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

*Lehenengo ardatza*

*Hurbilketa eta erdigunea balioztatzea*

**Bigarren ardatza**

**Hirugarren ardatza**

**Laugarren ardatza**

## **1.3. PUNTAKO ERAKARGARRITASUNA DUTEN GUNEEN HURBILKETA ETA ERDIGUNEA BALIOZTATZEA**

Hondarribiako hiri guneak, muturren arteko distantzia zabalak ditu (Parte Zaharra/ Portua eta Kirol Kaia/ Hondartza), eta bere egiturak ez du beraien arteko jarraipena laguntzen.

### **1.3.1. Barne garraio zerbitzu publikoa**

Barne zerbitzu bat martxan jartzeko balioztatpena egitea, Zumardia/ Hondartza, sasoian, hondartza gunea udalerriko merkataritza gunera hurbilduko duena.

Proiektuaren bideragarritasun dimentsioaren azterketa; eta udalerriko taxilarien ekimen proiektuaren estaldura ahalbidetzea. Aldi berean, merkataritza ezaugarriekin zerbitzua erabiltzea, ez bakarrik udalerrien artean edo aireportuen zerbitzu bezala.

Egun dagoen Autobus linearen balioztatpena egitea, (hondartza- Portua- Alde Zaharra), hondartzako parking-aren ordainketa garraio txartela bezala erabiliz.

# Lehengo ardatza “Hiri-ekonomia garatzeko hiri-gunea”

## *Lehenengo ardatza*

### *Hurbilketa eta erdigunea bailioztatzea*

## **Bigarren ardatza**

## **Hirugarren ardatza**

## **Laugarren ardatza**

### **1.3.2. Hondartza eta Portuaren arteko ibilbide motorizatu gabea errazteko bizikleta zerbitzua**

Hondartza/ kirol kaiaren eta portuaren artean mugikortasuna errazteko asmoz, bizikleta zerbitzu bat bultzatu. Beste aukerak balioztatu. – pribatuak, publikoak- eta ibilbideak.

### **1.3.3. Hondarribia-Irun itsas garraioa miatu.**

Ezaugarri ludiko-turistikoa duen garraio zerbitzu baten ezarpena balioztatu, Irun eta Hondarribiaren artean. Kostu-onuren analisia.

### **1.3.4. Itsas aurrearen hiri-jarraipena**

Oinezkoen guneen jarraitasuna hobetzeko esku hartzeen garapena, Kirol gunea/hondartzaren eta Portuaren artean (gune horretatik ibiltzeko gonbitea) eta benta inguruko itsas aurrearen jarraipena.

### **1.3.5. Turismo nahiz merkataritza seinaleak**

Seinaleak ezartze proiektua, merkataritza nahiz turismo ibilbideei buruzko informazio orokorra eta balizatzailea adierazten dutenak, udalerraren erdi gunean zehar, eta hirugarren sektoreko establezimenduetara ibilbidea erraztuko dutenak, baita, Alde Zaharra adierazten dutenak ere.

# Bigarren ardatza "Hirugarren sektore enpresa lehiakorra"

Lehenengo ardatza

## 2.1. MERKATARITZA ESKARIARI EGOKITU: TURISTAREN TXOKOA

*Bigarren ardatza*

Egun bakarreko edo egonaldi laburreko bisitarien garrantzi turistikoa gero eta handiagoa den esparru batean optimizatu daitezkeen produktu lerroen merkatal eskaintza indartu. Ekipamendu pertsonala, aisia, kultura eta bultzadazko erosketari eta oroimenari lotutako beste produktu batzuk, zehazki.

Establezimendu guztietan "Turistaren Txokoa" sortu: bezero turistikorentzat aukeraturiko produktu "erakarleak" (prezio erakargarriak edota abantaila bereziak) eskaintzeko eremu egonkorra.

Hirugarren ardatza

## 2.2. BEZEROARENTZAT GEHITUTAKO BALOREA

Laugarren ardatza

Salmenta ondorengo zerbitzu osagarriak: adibide moduan, etxez-etxeko banaketa Hondarribiako bizilagunentzat (Barne Garraioa 1.3.1.- jarduerarekin lotuta) eta posta zerbitzu bidez bidaltzea bisitariarentzat.

# Bigarren ardatza "Hirugarren sektore enpresa lehiakorra"

Lehenengo ardatza

## 2.3. BANAKAKO ESKAINTZA MODERNIZATU ETA KUALIFIKATU: PLAN DE MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUN PLANA

*Bigarren ardatza*

Hiri merkataritzaren lehiakortasuna hobetzeko eta eraberritzeko lan egin: hobekuntza esfortzuak hiru norabidetan garatuko dituen Merkataritzaren Lehiakortasun Plana:

- Salmenta puntuaren kudeaketa berrikuntza eta erakargarritasunaren oinarri bezala.
- Bi profil ezberdinen beharretan oinarritutako prestakuntza ikuspegi bateratua: Merkataria (Marketing estrategiko ikuspegia) + Saltzailea (Bezero Marketing ikuspegia).
- Ezaugarri eta dimentsio ezberdineko izaera turistikoko hiri merkataritza-guneetara bisita gidatuak egin.

Hirugarren ardatza

Plan honen garapena, lehendik elkarte dinamika egoki bat izateak baldintzatuko du (ikus 2.3. jarduera).

Laugarren ardatza

# Bigarren ardatza "Hirugarren sektore enpresa lehiakorra"

Lehenengo ardatza

*Bigarren ardatza*

Hirugarren ardatza

Laugarren ardatza

## 2.4. OSTALARITZAREKIN BAT ELKARTE DINAMIKOA MARTXAN JARRI: ELKARTEA BIRSORTU

Komertzialki kontsumo ohitura berrien eraginei zein erakarpen handiagoko eskaintza moldeei (Irun-Donostia ardatzera ihesa) eta aisiak eta turismoak dakartzan aukerei (ostalaritza motorra) aurre egin behar dien udalerrri batean sektorea "bizkortzeak" egun oraindik ez dauden "tentsioa eta dinamismoa" eskatzen ditu.

Elkarteen birsortzea baterako merkatal esku-hartzeak sustatzeko ezinbesteko pausu bezala; ostalaritza sektorearekin batera buruturiko esku-hartzeak martxan jarri, eta herri-instantziekin elkarrizketa gune egonkorak sortu. Birsortze honek eskatzen du:

- Bazkide kopuruaren handitze garrantzitsua: trantsizio hau, egun dagoen elkarteak gidatu beharko du erakundeen babesa eta ostalaritza sektorearen laguntzarekin.
- Elkartearen kudeaketa profesionala egiteko aukerak aztertu; paraleloan burutzen den ostalaritza dinamikaren sinergiak aprobetxatuz.
- Taldearen kohesioa bultzatuz elkartearen barne egitura indartu (elkartearen urteroko saria, bazkideen arteko afaria sari banaketarekin...).
- Hondarribiako bezeroen fideltasuna bultzatuko duten jarduerak (Txartel Propioa) barne hartzen dituen Taldeko Marketing Plana (kanpokoak) garatu.
- Elkarteak, Merkataritzaren Lehiakortasun Plana dinamizatu beharko du (2.2. Jarduera).

# Hirugarren ardatza "Hiri-giro dinamikoa eta bizia"

Lehenengo ardatza

## 3.1. OSTALARITZA ETA MERKATARITZA: OSTALARITZAREN ERAKARGARRITASUN MOTORRA

Bigarren ardatza

Ostalaritza komertzialki bultzatu, bezeroak erakartzeko duen gaitasuna eta sona aprobetxatuz.

*Hirugarren ardatza*

### 3.1.1. Lotara gelditzen den turistaren asteko jardunaldia (Hotelen, ostatuen eta camping-en laguntzaz)

Asteko egun bat ezarri, printzipioz "baxuena" Hondarribian bertan lo egiten duen turistari deskontu zehatzak eskaintzeko asmoz.

*Ostalaritza eta Merkataritza*

Jarduera hau, herriko hotelen gremioarekin batera garatu beharrekoa da, eta hauek, bezeroen artean, hautatutako eguna ezagutzera emango dute. Honela, "bono" edo txartelak nahiz beste formula baten bidez, bertan lo egiten duten turistak direla adieraziz, merkataritza establezimenduetan aurkeztu dezakete.

Laugarren ardatza

Probatzea eta doitzea: emaitzaren arabera, astean behin baino gehiagotan nahiz egunero gauzatzeko aukera izatea.

# Hirugarren ardatza "Hiri-giro dinamikoa eta bizia"

## Lehenengo ardatza

### 3.1.2. Ostalaritzako bezeroentzat merkataritza abantailak (Jatetxeen laguntzarekin)

Jatetxeekin antzeko jarduerak aurrera eramatea. Promozioa astero behin edo gehiagotan gauzatzeko aukera, aurreko kasuan bezala probatzeko eta doitzeko aukera.

## Bigarren ardatza

## Hirugarren ardatza

### 3.1.3. Kirol kaiaren erabiltzailearentzako merkataritza abantailak

Kirol kaiaren erabiltzaileari antzeko mekanismoa. Identifikazio bidea erabiltzaile dela agertuz, baloratzeke.

## Ostalaritza eta Merkataritza

## Laugarren ardatza

# Hirugarren ardatza "Hiri-giro dinamikoa eta bizia"

Lehenengo  
ardatza

## 3.2. MERKATARITZA ETA UDALERRIAREN KANPO-PROIEKZIOA

Bigarren  
ardatza

### 3.2.1. Indar ideia + Slogana + Logoa

Udalerriaren, merkataritza nahiz ostalaritzaren kanpo proiektzioa gauzatzeko asmoz, indar ideia bat sortu slogan eta logo baten bidez. Ideien lehiaketa.

*Hirugarren  
ardatza*

*Merkataritza  
eta  
Udalerriaren  
kanpo-  
Proiektzioa*

### 3.2.2. Urtaroaren araberako eskaria desegituratzea: ostalaritzako langile sektorea turismo segmentu bezala

Turismo merkataritza-ibilbideen bidez, udalerriaz kanpora begira egiten den proiektzioaz gain, hondarribiar ostalaritzaren etengabeko sona kontutan hartuz, aprobetxatu daiteke, Hondarribia zehazki promozionatzeko, estatuko beste lurraldeetako ostalaritza langile segmentuaren artean. Proiektzioa udazken nahiz udaberriko turismoarekin lotuta.

Laugarren  
ardatza

# Hirugarren ardatza "Hiri-giro dinamikoa eta bizia"

Lehenengo  
ardatza

## 3.3. HONDARRIBIAKO TESTUINGURURA MERKATARITZAREN EGOKITZAPENA

Bigarren  
ardatza

### 3.3.1. Erosketaren asteko eguna

Herritarren gastua udalerrian bertan gera dadin, astean behin ordutegia arratsalde/gauera luzatzeko aukera aztertu, egun honetan abantailak eta promozioak eskainiko direlarik. EROSKETEN ASTEKO EGUNA

*Hirugarren  
ardatza*

*Testuingurua  
merkataritzaren  
egokitzena*

### 3.3.2. Ordutegia

Urtaroko bezeroak. Udalerriaren ezaugarri turistiko koherentea kontutan izanik, irudi homoginoa agertzeko asmoz, asteburuan eta goi-denboraldian ordutegia doitzeko beharrari buruzko eztabaida bultzatzearen beharra ikusten da.

Laugarren  
ardatza

# Hirugarren ardatza “Hiri-giro dinamikoa eta bizia”

## Lehenengo ardatza

### 3.3.3. Ekintza kultural eta hiri animazio orokorraren ikuspena eta hedapena

Hondarribian garatzen diren ekitaldi ezberdinen hedapena indartu (informazio liburuxkak, panelak edo bestelako formulak).

## Bigarren ardatza

Hedapen prozesu honetan Saltokiek ere parte hartu beharko dute –ekitaldien antena- beren establezimenduetan liburuxkak banatuz.

## Hirugarren ardatza

### Testuingurua merkataritzaren egokitzapena

### 3.3.4. Merkataritza Jarduera Orokorren Agendarekin bat

Merkataritza udalerriko jarduera ludiko, jai-jarduera eta elkarte jarduera agendarekin bat koordinatzea, merkataritza eta ostalaritza indartzeko asmoz, urte guztian zehar jarduera programa bat bermatzeko xedarekin. Ahaleginak ordezkatu ordezkatu, aprobetxatu eta osatu.

## Laugarren ardatza

Azoka eta azoka txikiak udalerriko merkataritza gunearen merkataritza polaritate elementu gisa: gaia eztabaidarako elementu bezala erabili eta, behar izanez gero, etorkizunean zehaztu.

# Hirugarren ardatza "Hiri-giro dinamikoa eta bizia"

Lehenengo  
ardatza

## **3.4. MERKATARITZA BISITARIARENGANA HURBILDU: EROSKETAK ERRAZTU**

Bigarren  
ardatza

### **3.4.1. Aparkalekuen Kudeaketa Komertziala: elkar ordainketa + merkataritza kontsigna**

Aparkalekurako lehenengo orduko gonbidapen komertziala, edo antzeko zerbait (Udalarekin elkar hartuz ). Etorkizunerako kudeaketa formula zehaztu (Benta) eta hondartzan (gaur egun).

Aparkalekuan merkataritza kontsigna zerbitzuaren eraketa (etorkizunean Benta), bezeroak erositakoa erraztasunarekin eraman ahal izateko.

*Hirugarren  
ardatz*

### **3.4.2. Bisitariari udalerrira sartzeko ekipamenduen deskontu-bonoa eskaini**

Hendaiara eta hondartzako aparkalekura zuzendutako jarduera: Portura mugitzeko gonbidapena.

*Merkataritza  
bisitariarengana  
hurbildu*

### **3.4.3. Kalearen jabetza aktiboa eta erakargarria**

Kalearen jabetza aktiboa merkatariairen aldetik, zainketa elementuak ezarriz, lorontziak, hiri paisaia zainduz, erakustokiak ezarriz,...-ostalaritzaren presentzia orekatuko duena - terrazak-.Gune publikoaren eta pribatuaren udal arauen ikuskapen eta egokitzapena.

**Laugarren  
ardatza**

### **3.4.4. Merkataritza nabarmentasuna eta dagoen eskaintzaren informazioa**

Sarean merkataritzaren presentzia (udal-web-a + bere web-a -Mugan-en esperientzia). Hedapenerako liburuxkak (Irungo esperientzia).

# Laugarren ardatza “Hiri-giro dinamikoa eta bizia”

## Lehenengo ardatza

Merkagunea eta Hitzarmenean edo Akordio Markoan zerikusia duten agenteak udalerriko Merkataritza eta Hirugarren Sektore foro edo batzordea osatzen dute.

## Bigarren ardatza

Marko horretan urteroko jarraipena egingo duen mekanismo bat sortzea beharrezkoa litzateke baita urteroko Jarduera Plana eratzea ere.

## Hirugarren ardatza

## *Laugarren ardatza*

Honela, Urteko Jarduera Plana egokituko da, honen adierazgarrien betetze maila monitorizatzearen arabera. Ondoren, azaldutako ardatz desberdinak aurkeztuko dira, ilustrazio moduan.